



Trenbideen aurkako beste lehergailu batek egin zuen eztanda Burgosen / 6



Juan Pablo II Aita Santua kroaziarren eskubideen alde mintzatu da / 21



Ainhoa Artetaren emanaldi batekin amaituko da Itxas Soinuen Jaialdia / 27

EUSKALDUNON Egunkaria

Igandea, 1991ko abuztuak 18 / II. urtea / 217. zenbakia / Salneurria: 75 pta. / 4,5 libera

Donosti komandoko hiru lagun hil ditu Espainiako Poliziak

Luis Roldanek ez zuen hildakoen izenik eman nahi izan

Hiru lagun hil zituen atzo Goardia Zibilak Donostiako Morlans auzoan. Donostian, Erreterian, Usurbilen eta Irunen burutu polizi operazio luze eta zabalean beste hamar lagun atxilotu zituen Poliziak eta bi goardia zibil balaz zaurituta gertatu ziren. Luis Roldan Goardia Zibilaren Zuzendari Nagusiak egindako balantzean esan zuenez zortzi lagunek ihes egitea lortu zuten eta «Donosti» eta «Ipar Haizea» komandoak deuseztu zituzten.

Ez zuen Roldanek hildakoen izenik eman. Azken orduan, ordea, Patxi Itziar mutrikuarra (Gipuzkoa), Iñaki Ormaetxea urbinarra (Araba) eta 35 urteko goierritar bat aipatzen ziren, kazetarien artean, izan zitezkeela hiru hildakoak. Roldanek esan zuen «Donostia komandoko» liberatuak zirela hirurak. Donostiako Morlans auzoko «Tolaretxean» zegoen Maria Eugenia Muñagorri, orduan aldera entregatu zuen bere

burua. Antza denez, ondoren erabaki zuten goardia zibilek etxean sartzea eta orduan hil zituzten «Donostia Komandokoak» omen ziren hiru lagunak. Poliziaren iturrien inguruan Mikel, Fernando eta Martin izenak aipatu dira, ezer ofizialik izan gabe.

Erreterian atxilotutakoak komando honen laguntzaile aritzen zen «Ipar Haizea» komandokoak lirateke eta Irunen azken ekintzak burutu dituen komandoko kideak ere identifikatuak izan dira Roldanen arabera. Hauek ihes egitea lortu dute ordea. Goizeko 04,30etan Donostian Sergio Garzia atxilotuz hasi zen operazioak eguerdira arte iraun zuen Morlans auzoko ekintzan. Bederatziak eta hogeita aldera inguruko mendietatik behera, oinez, goardia zibil andana batek «Tolaretxea» inguratu zuen. Inguruko auzoak etxeetatik atera eta hamarrak alderako ari ziren jada tiroka. Orduan pasata sartu ziren poliziak etxera. / 4-5



MARIA Eugenia Muñagorri oinez atera zen (zirkuluz CARLOS VILLAGRANEN argazkian) Donostiako Morlans auzoko Tolaretxe etxetik goardia zibilekin batera, hiru ordu iraun zuen tiroketa baten ondoren. Muñagorriekin zeuden beste hiru lagunak, hiru gizonetzko, ustez ETAKo 'Donosti' komandoko partaideak hilda atera zituzten etxearen beheko solairutik (ikus geziak). Polizi ekintza goizeko 9.20etan hasi zen, Goardia Zibileko GAR talde bereziak Morlans inguratzen hasi zirenean. Lehen tiro hotsak 10.30etan hasi ziren, eta nahasmen giroan, arratsaldeko lehen ordurarte luzatu ziren, ambulanzien joan etorriekin batera. Matia Eugenia Muñagorri zaurituta egon zitekeela zabaldu zen, baina Goardia Zibileko zuzendari nagusiak, Luis Roldan-ek, esan zuenez, ez zuen zauririk.

Erantzun franko Euskal Herrian

Erantzun franko sortu zituen Euskal Herrian Donostia aldean Espainiako Poliziak atzo burututako operazioak. Donostian bertan, tabernak itxi eta manifestazio bat egin zuten arratsaldeko zortziretan milaka lagunek. Autobus bat erre eta Erreterian eta Donostia bitarteko karretera moztuta zegoen barrikadekin. Bilbon, festen hasiera zela eta, «Gora ETA militarra» zioten manifestari batzuk Marijaia eta agintariak Udal-txetetik Arriagara zihoazenean. Manifestazioa burutu zuten gaueko hamarrak aldera. HBk, EMK-LKI, Amnistiaren Aldeko Batzordeak eta Garraisi Isilak ekintza salatu dute. HBk dei egin du egunotan ospatuko diren ekintza eta omenaldietan parte hartzerara. Elkarrizketa eta negoziazioaren bidea jorratu beharra azpimarratu zuen HBk.

ATXILOKETA ETA MIAKETAK	
	04:30 Amara Zaharra: Sergio Garcia gaztearen atxiloteta.
	06:00 Erreteria: Amaia Seguraren atxiloteta.
	07:00 Erreteria: Jose Mari Mujikaren atxiloteta.
	08:00 Alde Zaharra: Joseba Arizmendi eta Ainhoa Cresporen atxilotetak. Etxe miaketa ugari.
	08:00 Usurbil: Ustezko atxiloteta.
	10:30 Morlans: Tiroketa hasten da.
	12:30 Gros: Joan Vazquez frantsesaren atxiloteta.
	13:30 Morlans: Tiroketaren amaiera. Ondorioz, hiru hildako.
Gaua barrena Irun eta Intxaurren: Miaketak.	

I. MARTIARENA

LOTERIA

400 milioi pezeta banatu dira Tolosan

Atzoko Loteria Nazionaleko lehen sariari eta sari bereziari dagozkion zerbakiak Tolosan saldu dira. 406 milioi pezeta banatuko dira bertan. Durangon ere lehen sariko di-ruaren parte bat tokatu da. / 10

Hasi da Bilboko Aste Nagusia

Bilbok atzo ekin zion jaiari, eta Donostiak gaur itxiko du bere Aste Nagusia. Jendetza izugarria bildu zen atzo iluntzean Bilboko Arenalean, Santurtzitik zetorren Marijaiari harrera egiteko. Hau Pittu Hau konpartako ordezkariak txupina bota zuenean hasi zen jaia ofizialki, eta Pello Zubiria zuzendariak irakurri zuen pregoia EUSKALDUNON EGUNKARIAren izenean. Donostian gertatutakoa zela eta tentsio uneak ere bizi izan ziren Bilboko Aste Nagusiaren hasieran. / 11-17

Alde bateko eta besteko atentatuak Ipar Irlandan

Ipar Irlandan ez da izan joan den abuztuaren 9tik atentaturik gabeko egunik. Atzo IRAk soldadu bat hil zuen eta herenegun talde paramilitar protestanteek bi katoliko hil zituzten. Gertakari hauen ondorioz, mendekuzko atentatu gehiago egon daitezkeelako susmoa sortu du, eta biolentzia amai-gabera hel daitezkeelako ere bai. Gerra giroa berpiztu da berriro Ipar Irlandan. / 21

BESTERIK

POLITIKA

ETA eta IK-k bere gain hartu dituzte hainbat atentatu / 6

GIZARTEA

Aralarko San Migelera gaur igoko da tripakiz betetako Lakuntzako Pertza / 8

EKONOMIA

Azken urtean 100.000 lanpostu galdu dira Espainiako industri sektorean / 19